

## Euskal AEko I+G gastua %1,4 handitu zen 2016an, hiru urtez jaitsi ondoren


**Enpresen gastuan %+2,3; Administrazioarenean %+5,2; Goi mailako irakaskuntzarenean %-3,7**

2016an, Euskal AEn guztira 1.290,9 milioi inbertitu ziren Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoaren (I+G) jardueretan, aurreko urtean baino %1,4 gehiago, Eustaten datuen arabera. Hazkundera berriz, hiru urtez jaitsi ondoren.

Langile enplegatuak, 17.898 DOBn (Dedikazio Osoko Baliokidetzan) aurreko urtearen aldean %1,8 gutxitu. Ikertzaileak, 11.916 (DOB), %-1,4.

2016an, I+G gastua, BPGren %1,82, ehuneko 4 ehunen gutxiago aurreko urtearen aldean. Eurostatek argitaratutako behin-behineko datuaren arabera, %1,19 Espainian (%53 gainerik Euskal AE); 28-EBn, batez beste, %2,03 (Euskal AE %10,3 azpitik).

**1 grafikoa: I+G gastuaren bilakaera, BPGreko (%)**



\*behin-behineko datuak

Iturria: Eurostat eta Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

## Euskal AEko I+G gastuaren %75,4 enpresek egikaritu zuten, haien pisua goraka gastu osoan

Enpresek I+G gastuaren %75,4 (972,9 milioi) egikaritu zuten; %17,5 (226,0 milioi), Goi-mailako Irakaskuntzak; %7,1 (92,0 milioi) Administrazioaren mendeko zenbait erakundek. Aurreko urtearen aldean, Enpresek %2,3 gehiago gastatu dute; Administrazioak %5,2 gehiago.; Irakaskuntzak %3,7 gutxiago.

### 1 taula: Euskal AEko I+Gko barne-gastua, egikaritze-sekoreen eta fondoer jatorriaren arabera (mila euro). 2016

	Guztira	Administrazio Publikoa	Goimailako irakaskuntza	Enpresak	Irabaziasmorik gabeko erakunde pribatuak	Atzeritik etorriak
<b>Guztira</b>	1.290.911	432.223	40.267	719.644	3.880	94.898
<b>Enpresak</b>	972.864	187.024	169	705.623	1436	78.611
<b>Administrazio Publikoa</b>	92.077	83.352	141	4.586	1.337	2.662
<b>Goimailako irakaskuntza</b>	225.970	161.846	39.957	9.435	1.107	13.625

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

**I+G gastuaren finantzaketan**, portzentajeak aurreko urteetako antzekoak dira. Finantzaketa pribatuak, enpresen bidez, 719,6 milioi bideratu zituen ikerketara, guztizkoaren %55,7; %1,5 gehiago 2015ekoaren aldean; lehen diru-iturria.

**Finantzaketa publikoak**, 432,2 milioi, guztiaren %33,5; %+1,8. Goi mailako irakaskuntzak 40,3 milioi, funtsen %3,1; atzeritik 94,9 milioi, %7,4; 3,9 milioi, %0,3 irabazi asmorik gabeko erakundeetatik.

### 2 taula: gastuaren eta pertsonalaren bilakaera (DOB) Euskal Aen. 2008-2016

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<b>I+G Gastuak</b>									
Guztira (Milioi euro)	<b>1.263,9</b>	<b>1.280,9</b>	<b>1.360,3</b>	<b>1.366,2</b>	<b>1.372,9</b>	<b>1.316,8</b>	<b>1.289,8</b>	<b>1.273,2</b>	<b>1.290,9</b>
Urteko gehikuntza (%)	15,9	1,3	6,2	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3	1,4
<b>Pertsonala (DOB)*</b>									
Guztira	<b>15.373</b>	<b>16.690</b>	<b>17.532</b>	<b>17.879</b>	<b>18.682</b>	<b>18.280</b>	<b>18.535</b>	<b>18.217</b>	<b>17.898</b>
Urteko gehikuntza	6,5	8,6	5,0	2,0	4,5	-2,2	0,4	-1,7	-1,8
<b>Ikertzaileak (DOB)*</b>									
Guztira	<b>9.640</b>	<b>10.386</b>	<b>11.071</b>	<b>11.283</b>	<b>11.772</b>	<b>11.959</b>	<b>12.030</b>	<b>12.089</b>	<b>11.916</b>
Urteko gehikuntza	4,6	7,7	6,6	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5	-1,4

\*DOB: dedikazio osoko baliokidetzak

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

**Langile enplegatutak**, 17.898 DOBn (Dedikazio Osoko Baliokidetzan) Enpresetan 12.637 langile (guztien %70,6); Goi-mailako Irakaskuntzan 4.005 (%22,4); Administrazio Publikoan 1.256 (%7,0).

### I+G langileen %35,6, emakumeak, 2016an

I+G dedikazio osoko langileen 6.375 (%35,6), emakumeak; I+G jardueretan emakumeek duten parte-hartzearen ehunekorik handienak Administrazio Publikoan eta Goi-mailako Irakaskuntzan dira, %55,0 eta %50,1. Enpresetan %29,1.

### 3 taula: I+G gastua egikaritze sektoreen arabera (%)

	2012	2013	2014	2015	2016
Enpresak eta IAGEP	75,8	75,4	75,1	74,7	75,4
Herri administrazioa	6,3	6,4	6,5	6,9	7,1
Goi-mailako irakaskuntza	17,9	18,2	18,4	18,4	17,5

**Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G**

Aurreko urtearen aldean Enpresaren sektoreak jarraitzen du izaten ikerketa-ahaleginik handiena egiten duena; lau urtez behera egin ondoren, zazpi hamarren gehiagoz, %75,4. Administrazio Publikoak %7,1, bi hamarren gehiago. Goi mailako irakaskuntzan, hainbat urtez goraka joan ondoren, bederatzi hamarren gutxiago, beste bi sektoreek irabazitakoa; %17,5.

#### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
 Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz  
 Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62